

# **ADAM ETA EBA**

Comedie en deux actes

## **Personnages:**

*Pierre, paysan miserable: 60 ans*

*Juana Eder, sa femme: 59 ans*

*Mariun, une voisine: 58 ans*

*Andere Jauregizahar, la contesse: 70 ans*

*Margarita eta Gaxuxa (femme de chambre)*

# Acte 1

## Scène I

*Juana Eder assise au coin du feu éteint, tricote*

**MARIUN** (*entrant*): Jainkuak tuzula egun on Juana Eder.

**JUANA**: Bai zuri ere Mariun, sar zite.

**MARIUN**: Bertan zira eta zintzurreko min hura nola duzu?

**JUANA**: Hala... hola... Estomaka hau dut orai eri... Eta bestalde bizia hain khario (*levant la tête elle voi MARIUN endimanchée*). Bainan norat abian zira hoin aphindia, oixtian sartu zirelarik uste nuen markisa bat heldu zautala.

**MARIUN**: Ba aise, hala banintz ba...

**JUANA**: Zerbeit plaze haundi baduzu naski...

**MARIUN**: Pentsatu duzu... egun amatxi niz... eta phesta egin behar dugu bataioaren ohoretan, zure xerka heldu nintzan amatxi laguntzat.

**JUANA**: Untsa plazer nuke segur... bainan nihundik ez nitake jin... galtzerdi pare bat badut finitzeko gaur berian esperantxa dut xekharia.

**MARIUN**: Alo, holaz ikhusten dut etzitakela jin... beraz juhan niz, ene behar baitaude.

**JUANA**: Ez zira samurtzen Mariun.

**MARIUN**: Ez, ez Juana Eder ikhusten dut arras ontsa zure ezinbertzia.

**JUANA**: Baina, Mariun ez ahantz ene bixkotxa phartia.

**MARIUN**: Zaude trankil ukhanen duzu... Ikhus artio (*elle sort*)

## Scène II

**JUANA** (*seule*): Hauxe da hotza! Eta surik ez berotzeko. Eta berriz gizon hua ixtantian jien (*elle fait craquer les allumettes*). Bon, ez nuen beste beharragorik ene su phiztekuak bustiak.

## Scène III

**PIARRES** (*entre avec quelques bois*): Ze... ez duzula surik holako hotzarekin... Ala uste duzu bero zela oihanian.

**JUANA**: Zer nahi duk, gaizo Piarres, su phiztekuak ilhaxunian bustirik...

**PIARRES** (*un peu en colère*): Bainan zertako ezartzen tun hor.. Hainbeste aldiz errana ez hor ezartzeko eta bethi bardin hire kasko gogorra. (*Il prend sa pipe*) Eta ene tabakoa non da?...

**JUANA**: Fini hura ere...

**PIARRES**: Ez dun bada erosi... (*mouvement d'impatience*)

**JUANA**: Emak sosa, juanen nuk abian erosterat... Samur hadi orai iduri eta ez dugun aski miseria hola, hola hortako nuk ba presatia galtzerdi horien finitzeat hunen sosarekin kafe on bat edanen diuk biek eta tabakoa ere erosiko...

**PIARRES**: Baina arte huntan ni gose nun, eman fite zerbait jaterat hunat (*il s'assied à table*).

**JUANA**: To! Horra bardako lursagar hundarrak... oraino xantza duk ez baititut oiloer eman!

**PIARRES**: Ez badun hau baizik emaiteko, ez dinat estomakako minik bilduko (*il mange*). Goiz huntan preseski, juan den iganedeko jaun erretoran pedeikia goguan egona nun. Adamen eta Eban gainian erran daukunaz! Untsa egia hori... ez dea bada lastima lehen emaztiak ez gehiagoko zentzurik izaitia. (*S'adressant à JUANA*) Ikhusten dun Joana Eder, bethiu denetan emaztekoa izan dun gauzen nahastalea. Ez balitz izan Eba hain gormanta, hain kuriosa... ez gintazken orai garen hainian...

**JUANA**: Hori duk! Denak emaztekiaren gain!... Eta Adam zozo harek zertako hartu du? Harek ere gauza onak maite, haren falta ere baduk.

**PIARRES:** Giza gajua, hura ere emaztekiak eskuratu. Berriz ere erten dinat, emazteki horiek oro berdinak zizte! Ez dun zien artean bi motarik.

**JUANA:** Oro emaztekiaren gain juanen ditut, sua hila bada haren falta, kozina ez bada egosia haren falta, lapin bat hiltzen bada haren falta. Aldiz ziek gizonek ez duzue deusik egiten makhur... Eta asko gauza ez bada xuxen juhan, ah, ordian ez duk zien falta.. ordian hala beharra, ezin bertzia.

**PIARRES:** Aski hortarik, ixil hadi! Bazakinat ene goztuz mihi azpiko zaina untsa phikatia dunala. Zer mika sorgin! Ni lehertua jina, hezurretaino bustia... Gose hamikatia... eta sua hila, ezin bero, ezin idoz, deus jateko, eta oraino hire erasiak behar aditu... beharba goiz guzia phastia dun kalakan...

**JUANA** (*se croissant les bras*): Hizen bezalako gezurti tzarra... Nik goiz huntan errefusqatia Mariuni amatxi lagun joatia Galtxagorri-bordako anderiaren galtzerdiak finitu behar nituelakotz... Badik berrogoi urthe hirekin ezkondua nizala, ez diat egundaino hitarik erasiarik baizik aditu... Nik jaten duana ere sobera zoak... (*faisant un mouvement de partir*). To! Nakukana erran duk, ni juhan nuk abian bathaioko bazkarirat... Ez diat hi bezelako tresna tzar baten beharrik.

**PIARRES** (*se levant*): Alo, alo Juan Eder, ez hola kexa, ez dinat nahi juan hadin, nik zer eginen dut gero hi gabe!...

**JUANA** (*en colère chreche un châle*): Asia nuk lephoraino! Juhan nuk (*elle s'en va*).

**PIARRES** (*la retenant*): Gaizo Juan Eder, barkha, urrikal hadi nitaz, hago othoi etxian, ez duna ikhusten ene planta...

## Scène IV

(*Madame Jauregizahar a entendu les dernières paroles, elle rentre*)

**JAUREGI:** Egun on adixkidiak, iduri duzi samur, zer dituzi manera horiek? Untsa memento txarrian jin niz.

**PIARRES:** Etzazula uste izan Madame makhur ginela, arras akortian gira. Joan Eder zen komisione egiterat abian...

**JAUREGI:** (*à JUANA*): Ez tzitut segur gibelatu nahi, zure aferetan.

**JUANA:** Oh, Madame, ez dut deus presarik (*lui présente la seule chaise de la cuisine*). Jar zaite, plazer baduzu.

**JAUREGI:** Milesker, bainan frango presatia niz (*ayant regardé le visage de JUANA*). Bainan errazu Juana Eder, begiak gorrixko tuzu, iduri duzu nigarrez arizana?

**JUANA:** Nik, a? Begiak gorriak! Ah! Tipula xuritzen arizana bainiz!

**PIARRES:** Ba, ba eta zer tipulak, gure astoak bezelako buru batzu.

**JAUREGI** (*riant*): Baia? Eta zer egin duzi holako tipula ederrekin?

**PIARRES:** Ah! Madame, ez tripotarik! Aspaldi du ez dugula holakorik ddastatu, lur sagar zonbit, horra hure egungo bazkaria.

(*Ils restent un instant silencieux*)

**PIARRES:** Badakizu Madame, zertan ginduen oixtiko khexadu joan den igandeko predikiaz, zer egiak erran dauzkun gure jaun erretorak... Adamen eta Ebaren gainian... Eba enuxent hura ez balitz sagarrari lothu hain untsa biziko ginen lur huntan.

**JUANA:** Ba, Madame, eta Piarresek denak emaztiaren gain ezartzen zituen.

**JAUREGI:** Xo, xo adixkidiak, ez hola mintza. Badakizia zer eginen zinuten ziek heien plazan?

**JUANA:** Nik hasteko, ez zenaz geroz haizu, ez nuen sagarrik hartuko.

**PIARRES:** Eta nik ez nuen ausikirik eginen...

**JAUREGI:** Ez dezagun nehoi harria bota. Beharba guhaur areagoak izanen ginen.

**JUANA:** Ah! Hori ez sekulan, ez ginen hain zozoak izanen. Nork aditu du sekulan gauza bat gisa hortan Jainkuak debekatua izan ondoan, norbeitik izan duela aski kopeta hari lotzeko.

**JAUREGI:** Jainkuak hola nahi izan duenaz gainian ez dugu besterik egiten ahal.

**PIARRES:** Aise ari zirea Madame, zuk badituzu behar dituzun guziak, baina guk.

**JUANA:** Eta futxo! Gure lehen burhasoek khasu egin balute...

**JAUREGI:** Xo, xo, nehork ez dezake erran zer gertatzen ahal zakiun.

**PIARRES:** Ni haatik ene buruaz segur niz!

**JUANA:** Ba eta ni ere...

**JAUREGI** (*après être restée un instant silencieuse*): Adixkidiak, Jainko maitiak berak igortzen nau zuenganat. Nahi duzue urus izan?

**PIARRES:** Ba, uste nuke!

**JUANA:** Bainan, nola izan gire..

**JAUREGI:** Untsa... Beraz bihartik zatozte biak ene etxerat, enekin bizitzerat, ukhanen dituzie behar dituzuen guziak, jan-edanak ausarki, itzal ederrak pausu on batzuen egiteko, funtsian oro zuen zerbitzuko izanen due! (*Pendant ce temps, les deux vieux ouvrent les yeux de plus en plus grands*)

**PIARRES:** Zer diozu? Madame! Baditakea.

**JUANA** (*les mains jointes*): Etzia irri egiteko bederen.

**JAUREGI:** Ez, ez zinez mintzo niz eta ikhusiko duzue ene hitza atxikiko dutala. Orai juhan niz, bihar arte, faltarik gabe. (*elle sort*)

**PIARRES:** Ba, ba bihar arte.

**JUANA:** Errak, errak Piarres, zer diok.

**PIARRES:** Ezin sinhetsia dela.

**JUANA:** Biharretik hasirik akabo beraz gure misriak... Urus izanen gituk zahartziari buruz.

**PIARRES:** Ez duk goizegi norbeit bederen urrikaldu baita gutaz lur huntan

RIDEAU

## Acte 2

*La salle représente une riche salle à manger, avec bouteilles et plats sur la table, une petite table sur laquelle est posée la fameuse "ferreta"*

## Scène I

*MARGUERITE et GAXUXA les deux bonnes*

**MARGUERITE:** (époussetant) Hau ederra dugu ba! Iduri ez ginduela aski lan hola-hola. Madamen fantesiarengatik eskale batzu zerbitzatu behar, alfer tzar batzu beren ogiaren irabazteko ez diren batzu.

**GAXUXA** (*assise, occupée à coudre*): Bainan nortaz mintzo zira? Nor dira eskale horiek?

**MARGUERITE:** Zer ez dakizu Mehetegiko senhar-emazteak jin behar direla hunat bizitzerat eta gu heien zerbitzuko behar girela?...

**GAXUXA:** Ah! Hori zena! Preseski Madamek barda errana zautan, baina nik nakina nortaz mintzo zen. Bainan ez hortako khexa Maragarita ontsa irri eginen dugu, ezen Madamek berak asmatu du joko hori jende horien erakusteko Adam eta Eba bezen enûlak direla.

**MARGUERITE:** Ah justo! Haurreri egin joko hura bera? Hel bezala zakhuan sar balite fire!...(On *entend de pas*) Xo! Xo! Ene ustez hor ditugu hure herrementak. (*Elle va ouvrir*).

## Scène II

*Les mêmes, PIARRES et JUANA EDER*

*(Pendant cette scène les deux femmes de chambre restent un peu à l'écart amussées par les réflexions des deux vieux)*

**PIARRES:** Oh, oh, beha zan Juan Eder, zer gauza ederrak! Iduri du lurreko parabisia!

**JUANA:** Kasu emak... gizon eskoila. Denak zikinzen dituk hire eskalapoin bustiekin. Torratu behar hintuen hemen sartu gabe.

*(PIARRES après avoir regardé ses sabots il les frotte rigoureusement sur le tapis)*

**JUANA:** Likhintsua, zer ari hiz? Tapiza eder horren gainian demuntren trastia (*elle se baisse et ramasse les debris*) To! Emazkik sakelan ez dituk bederen agerian izanen.

**PIARRES:** Bainan, Juan Eder behazan bada zer gauza ederrak direna hemen! Eta gu hemen bizi behar, ze xantza.

**JUANA:** Alo, ixilik gizona. Ez hiz gero hemen Mehetegian. Hemen behar duk jende gisa ibili... Khenak pekada hori.

**PIARRES** (*Tiant un mouchoir rouge et s'essuyant le nez*): Horra. Bainan hiaur eguadi plantan eta aho hori hets... Hire mottoa osoki makhur dun (*il la lui arrange*).

**JUANA:** (entendant le bruit de pas): Jainko maitia, kasu... Khasu Piarrex.

## Scène III

*(A l'entrée de la chatelaine les deux femmes de chambre font semblant de mettre les dernières mains à la table tandis que PIARRES et JUANA se tiennent immobiles)*

**JAUREGI:** Egun on adixkidiak... Jin zizte beraz, zatozte enekin erakutsiko dautzuetet non bizi behar zizten. (à GAXUXA) Eta zuk Gaxuxa emazu zopa mahainian gu gibelerat orduko. (*Elle sort, PIARRES et JUANA se pressent mutuellement à la porte pour sortir puis après quelques essais JUANA pousse son mari avec son parapluis bleu et ils sortent*)

## Scène IV

(MARGIERITE et GAXUXA seules après avoir ri de la sortie des vieux se mettent à finir l'arrangement)

**MARGUERITE** (*s'arrêtant devant la table sur laquelle se trouve la ferreta*): Khasu, ferreta hori ez dezagun hunki (*riant*). Segur niz ez direla aise egon beharrak horren barnia ikhusi gabe... Zer irriak egin behar dituguna.

**GAXUXA** (*regardant la table*): Aspaldi ez dutela jende horiek holako mahainik ikhusi, hea orai luzaz gozatuko diren!

**MARGUERITE**: Heldu zautan zerbeit gogorat! Horien gehiago harriarazteko mintzatuko gitun frantsesez?

**GAXUXA** (*riant*): Bai, bai, mintza gaiten, ez dine phitsik konprenituko, zer irriak egin behar ditugun. (*Elles sortent*)

## Scène V

MARGUERITE, JAUREGIZAHAR, PIARRES et JUANA EDER qui reviennent

**JAUREGI**: Beraz untsa konprenitu dituzue gauzak. Hemen diren guziak zuen zerbitzuko dire... Orai artio miseria gorria ikhusi duzie, hemendik aitzina balia zizte... Ikhusten duzue mahain hau, egun guzietz berdin izanen duzue... Bainan ez ahantz nik erranak (*montrant du doigt la ferreta*). Erran bezala, ez duzue sekulan hunkiko ferreta hori, aditu duzu Juana Eder!

**JUANA**: Segur Maame, badugu zeri lot hori hunki gabe.

**PIARRES**: Ez, ez Maame, hori sekulan, gure gainian kondatzen ahal duzu.

**JAUREGI**: Alo... badut aski erranik banoa... sarri artio (*elle sort*).

## Scène VI

**PIARRES**: Aditu duzu ferreta hori etzan gero hunki!

**JUANA**: Hago gustian, ez diat hunkituko, hik ez baduk iten...

**MARGUERITE** (*avançant une chaise à PIARRES*): Si Monsieur veut bien s'asseoir!...

**PIARRES** (*un moment interdit, poussant du coude JUANA*): Zer erran duno? Konprenitu duna...

**JUANA** (*levant les épaules*): Fitsik... Frantzesez mintzo duk.

**MARGUERITE**: Erraiten nautzien mahainian jartzeko.

**JUANA** (*s'assied*): Behazak othoi... badiuk hemen zerbeit jateko... Alo... Margarita zoazi pausatzerat.

**MARGUERITE**: Untsa da, banoa. Bainan ez ahantz Madamek debekatua duena ez hunki zuen onetan.

## Scène VII

**JUANA**: Zer dute ba denek ferreta debru horrekin...

**PIARRES**: Juan Eder, jan dezagun gostian. Ni segurik gose hamikatia nun. (*il prende la serviette et étonné la déplie*) Erran... zertako dugu mihise ttipi hau!... Ah! Beharba bihar goizian xukatxeko.

**JUANA**: Gizon zozoa, jan onduan ezpainen xukatxeko.

**PIARRES**: Ah? Baian, ez gitun hola usatiak.

**JUANA**: Allon, zertaik nahi duk hasi?...

**PIARRES**: Zertarik, emazte kakola, bainan bixtan dun zopatik. (*il se sert et mange*) Hauk gauza ona barnea berotzen din... ddasta zan, ez dakin ez hik holakorik egiten.

**JUANA**: Gei onakin errex duk ba zopa onaren egitia.

**PIARRES**: Nahi duna xorta bat...

**JUANA** (*toute pensive, tendant son verre*): Bixtan duk, eta emak gero aski.

**PIARRES**: Kasu eman Juan Eder moxkortuko hiz... eh bien! Zer dun bada hola gogoetatzeko iduri dun eliza horthako harrizko saindu hetarik.

**JUANA:** Ez diat ez phitsik. Bainan untsa nahi nitek jakin ferreta debru horrek zer din barnian.

**PIARRES:** Jan zan bada gostuan asietan dunan hori eta uzkin phentsaketak bazterrerat...

## Scène VIII

**GAXUXA** (*entrant*): Eh, bien zer diozi bada hemengo maneraz? Kontent ziztea?...

**PIARRES:** Ba, ba orai artian segurik ez gira pleini... (*il continue à manger*)

**GAXUXA** (*à JUANA*): Eta zu emaztekoa, iduritzen zaut baduzula zerbeit arrangura.

**JUANA:** Ez, ez batere, arras gostura niz. (*puis la prenant apart*) Bainan errazu hori, zendako ba ez ditake hunki... (*montrant du doigt la ferreta*).

**GAXUXA** (*mystérieuse*): Ah! Hori ez dakit... Etxeko anderiari juhan dena da...

**JUANA:** Erran dauku kanporat emanen gaituela hunkitzen badugu, egia dea hori?...

**GAXUXA:** Madame hori da ona barka lio segur zuen ausartzia. (*on appelle GAXUXA*) Etxeko anderiak deitzen nau banoa. (*elle sort*)

## Scène IX

PIARRES et JUANA EDER seuls

**JUANA:** Ikhusten duk Piarres Maamek irri egiteko erran daukula hori.

**PIARRES:** Zer! Eta hik sinhesten? Eginen dun gero irri etxeko anderiak kanpo emaiten bagitu.

**JUANA:** Zer apentzia! Sobera ona duk hortako... Eta bestalde fite eginen diat... estalgia doi-doi altxatu eta abian kukutuko diat.

**PIARRES:** Ohartuko dun eta bestalde ez othe ditugu hemen behar ditugun guziak.

**JUANA:** Beharba hor ezarria dik Maamek etxeko gauzarik pollitena.

**PIARRES:** Hartaz egia dun ez dinat nihun hemen bezelako gauza ederrik ikhusi.

**JUANA:** Ba, izan behar duk hor munduko gauzarik famatuenetarik.

**PIARRES:** Uste duna!...

**JUANA:** Ba, ba segur nuk. (*elle se lève et va vers PIARRES*) Badakik zer egin behar dukan, habil bortadino ikhusterat ian heldu den norbeit.

**PIARRES** (*se lève*): Ez nun ausartzen!...

**JUANA:** Ez duk lanjerrik, etxeko anderia gainian duk.

**PIARRES:** Bainan uste gabian heldu bazauku.

**JUANA:** Ez duk, ez duk lanjerrik, ez duk jinen.

**PIARRES** (*va à la porte et se retournant*): Ez gero arrabotsik egin eta mugi hadi.

**JUANA** (*soulève légèrement le couvercle, toutes les lumières s'éteignent. Elle laisse tomber le couvercle et pousse un cri terrible*): Hel, hel, Piarres xahu gituk.

**PIARRES** (*se précipite vers sa femme*): Zer lastima, zer lastima.

*(Les lumières se rallument tandis qu'un Ange sort lentement et se met à tourner...  
Les deux vieux ahuries, bouche ouverte, se mettent aussi à tourner en même temps, les bras au ciel)*

**PIARRES:** Ikhusten dun malurusa nik errana, Jainko maite maitia.

**JUANA:** Eta orai Maamek zer erranen du...

*(Entre JAUREGIZAHAR)*

**JAUREGI:** Zer erranen... Kurios eta desobedient haundi batzu ziztela, ez deus bertzerik.

Badakizue orai zer gelditzen zautzuen egiteko... Zoazte kanporat.

*(PIARRES et JUANA mains jointes)*

**PIARRES:** Barka, barka! Othoi barkha Maame, ez da ene falta nik ez nuen nahi, emaztiak egin du.

**JUANA:** Ez da ene falta... Zure neskatoak nau enganatu erranez irri egiteko mintzatu zinela.



**JAUREGI:** Zer irri egiteko etzineztena aitzinetik abisatiak, eta etzintutena lehenik errana sinhetsi behar... Eta zuk Piarres berriz botako duzia harria Adam eta Eba gaizoeri...? Zoazte bada eta jakin zazue egun zueri gerthatu makhur huntaz huts eta bekhatu guziek berekin deramatela beren gaztigua.

**PIARRES** (*à JUANA*): Hizan bezalako emazte kakola ikusten dun zertarat ekharri gaituen hire kuriostasunak. Oro jakin behar eta horra zer gerthatzen zaukun.

**JUANA:** Ba bethiko errepika bera... bethi ene falta... iduri eta hik ere...

**PIARRES:** Zer nik ere? Gezurti tzarra... No, ereman hori, ez dun oraikuan ebatsia... (*il lui donne une gifle*)

**JUANA** (*s'écroulant sur un fauteuil*): Zer lastima, berriz haste gure miseriak.

RIDEAU  
FIN